

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2015/2016 ikasturtea**

**Euskal mitologiaren lanketa Haur Hezkuntzako 2. zikloan:  
Lea-Artibaiko ikastetxeetako errealitatetik abiatuz, proposamen sorta  
baterantz**

**Egilea:** Jone Plaza Chopitea

**Zuzendaria:** Jurgi Kintana Goiriena

**Leioan, 2016ko maiatzaren 27an**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala .....	4
1.1. Mitologiaren garrantzia eta ekarpena .....	4
1.2. Euskal mitologia.....	6
1.3. Euskal mitologiaren gaia Haur Hezkuntzako 2. zikloan .....	7
2. Metodologia eta lanaren garapena .....	9
2.1. Diseinu metodologikoa eta aplikazio prozedura .....	9
2.2. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak .....	10
2.3. Parte-hartzaileak .....	10
2.4. Datuak biltzeko tresna .....	11
2.5. Datuen tratamendua .....	13
3. Emaitzak .....	14
4. Ondorioak eta proposamenak .....	18
4.1. Ikerketaren ondorioak .....	18
4.2. Proposamen sorta .....	19
4.3. Azken hitzak .....	23
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	24
 ERANSKINAK .....	 26
1. eranskina. Haur Hezkuntzako irakasleei banatutako galdetegia .....	27
2. eranskina. Emaitzen taulak .....	30
3. eranskina. Atal bakoitzaren batez bestekoa (4 eta 5 aukerak bateraturik) .....	32
4. eranskina. Proposamenen inguruko informazio gehigarria .....	34

## **Euskal mitologiaren lanketa Haur Hezkuntzako 2. zikloan:**

### **Lea-Artibaiko ikastetxeetako errealitatetik abiatuz, proposamen sorta baterantz**

**Jone Plaza Chopitea**

EHU/UPV

Lan honen helburua Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologiaren gaiak zer-nolako lekua duen ikustea da. Horretarako, Lea-Artibaiko (Bizkaia) hiru ikastetxetan bildu da informazioa eta lau eremu zehatz hartu dira kontuan: 1) irakasleek alor honen gainean duten formakuntza, 2) gaiari eskaintzen dioten garrantzia, 3) hurrekin gauzaten duten lanketa eta 4) baliabide eta materialen ezagutza. Informazioa Likert eskalako galdetegien bidez bildu da eta datu kuantitatiboak atera dira emaitzen adierazpena gauzatzeko. Garrantziaren eremuan balorazio altuak adierazi badituzte ere, gainontzeko hiru ataletan emaitza baxuak eskuratu dituzte parte-hartzaileek. Emaitzetan agertutako gabezia zehatzak aintzat hartuz, Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologiaren gaia lantzeko eta indartzeko proposamen sorta bat aurkezten da, hezkuntzan dihardugunok gai honen inguruan asko dugula egiteko ondorioztatuz.

*Euskal mitologia, ondare kulturala, ahozko tradizioa, Lea-Artibai, Haur Hezkuntza*

El objetivo de este trabajo es conocer el lugar que ocupa el tema de la mitología vasca en la 2º etapa de Educación Infantil. Para ello, se ha recolectado información en tres centros escolares de Lea-Artibai (Bizkaia) y se han tenido en cuenta cuatro ámbitos: 1) la formación que tienen los profesores en esta materia, 2) la importancia que le conceden al tema, 3) la enseñanza de la misma con los niños y 4) el conocimiento de los recursos y materiales. La información se ha recopilado mediante cuestionarios de escala Likert, se han extraído datos cuantitativos y con ello se ha preparado la exposición de los resultados. Aunque los participantes hayan mostrado altas valoraciones en el ámbito de la importancia, en el resto de los campos han obtenido bajos resultados. Teniendo en cuenta dichas carencias, se presenta una serie de propuestas para trabajar y reforzar el tema de la mitología vasca en la 2º etapa de Educación Infantil, deduciendo que los que trabajamos en la Educación tenemos mucho que hacer respecto a este tema.

*Mitología vasca, patrimonio cultural, tradición oral, Lea-Artibai, Educación Infantil*

The aim of this study is to see the place that the issue of the Basque mythology has in the 2<sup>nd</sup> stage of Childhood Education in three schools within the Lea-Artibai area (Biscay). For that, four fields have been taken into account: 1) the formation that teachers have in this matter, 2) the importance given to the subject, 3) its teaching among children and 4) the discern of resources and materials. The information has been collected using the Likert scale and, for the presentation of the results, quantitative data has been extracted. Although the participants have shown high outcomes in the recognition of its importance, in the rest of the areas they have obtained low outcomes. Considering these shortcomings, a set of proposals is presented, in order to work and reinforce the matter of Basque mythology in the 2<sup>nd</sup> stage of Childhood Education. We could deduce from the results that the teachers in Education should work harder in this issue.

*Basque mythology, cultural heritage, oral tradition, Lea-Artibai, Childhood Education*

## Sarrera

Lan honek euskal mitologiak babestu beharreko ondare kultural gisa duen garrantzia azpimarratu nahi du. Euskal mitologia esatean, euskal lurraldeko mito, kondaira eta askotariko pertsonaia mitologikoez ari gara. Haur Hezkuntzako curriculumak (Eusko Jaurlaritza, 237/2015 dekretua) dioen bezala, hurrek ohitura eta tradizio ezberdinak ezagutu behar dituzte, haietan parte hartuz eta haiekin gozatuz nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko. Hala, euskal mitologiak eskoletan helarazia izan behar den irakaspen-alor modura duen balioa ere azpimarratu nahi da.

Askotan, lantzeko ditugun eduki eta kontzeptu mordoaren aurrean, gure herriari eta kulturari dagozkien gaiak bazter uzten ditugu behar besteko denborarik eta espaziorik eskaini gabe. Alabaina, tankera honetako jakintzagaiek txikitatik nortasuna eta kultura identitatea eraikitzeke oinarritzko papera jokutzen dute. Horien bitartez, ezagutu baitezakegu nondik gatozen eta zer garen. Euskal mitologiaren gaiak gainera, horretarako eta gehiagorako ematen du. Haren bidez txikienek arbasoen azalean jartzeko aukera dute, lehenagoko pentsaera ezagutzekoa edota zer mundu-ikuskera zuten jakitekoa. Baita pertsonaia mitologikoei loturiko elezaharren bidez, balore ezberdinak ikasi eta aspektu andana garatzekoa: sormena, pentsamendu magikoa, euskarazko komunikazio gaitasuna...

Bide honetatik, Lea-Artibaiko hiru ikastetxetako Haur Hezkuntzako irakasleek euskal mitologiaren gaiarekiko duten ezagutza eta interesa aztertu da, eta ikusi, tradizio kultural hau lantzen ote duten ikasleekin eta horretarako, baliabiderik eskura duten. Lau eremu zehatz hartu dira kontuan aipatutakoa ondorioztatzeko: irakasleek alor honen gainean duten formakuntza, gaiari eskaintzen dioten garrantzia, hurrekin gauzatzen duten lanketa eta baliabide eta materialen ezagutza. Informazioa biltzeko Likerten eskalari dagozkion galdetegiak erabili dira. Ondoren, datu kuantitatiboak atera eta emaitzen adierazpena gauzatu da. Azkenez, Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologia lantzeko proposamen sorta bat aurkeztu eta ondorioen berri eman da.

Ikerketak berarekin dakar herri-jakintza honen inguruan eremu euskaldun bateko ikastetxeetako errealitatea nolakoa den aztertzeke aukera, horrexegatik hautatu da hain zuzen ere Lea-Artibai eskualdea. Hasierako hipotesia, testuinguruagatik, parte-hartzaileek gaiarekiko ezagupen eta interes minimo bat izango zutela zen. Baina posible zen beraien ikasleekin ez lantzea, ez jakinagatik nola joratu edota zein baliabide erabili, eta ondorenez gaiaren inguruko hutsune erreal batekin topo egitea.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala

Ahoz aho, belaunaldiz belaunaldi. Hala transmititu izan dira mendeetan zehar euskal mitologiari dagozkion tradiziozko elezahar eta kontakizunak. Azken hamarkadetan ostera, komunikatzeko eta informazio zabaltzeko dauden tresnak direla eta - telebista, irratia, Internet, sare sozialak eta beste - ahozko transmisio hori eten egin da.

Lehenagoko garai haietan, aitona-amonak ziren kontalari eta izaki magikoz, sorginez, pertsonaia indartsuz eta gertaera harrigarritz betetako kondairen jakitun. Esan ohi den moduan, haurrek gogo betez entzuten zituzten etxeko ahaide nagusienek narratutako istorioak. Tamalez ohitura berezi hori desagertu egin da, eta ondorenez, baliteke gure kulturari eta folkloeari dagozkion hainbat harribitxi arriskuan egotea.

Herri txikia gara, baina mitologiaren alorrean dugun aberastasuna izugarria da, ikusi eta entzun besterik ez dago mitoez arbasoen eta antzinako euskaldunen bizimoduaren, pentsaeraren, mundu-ikuskeraren eta abarren inguruan geureganatutako datuak. J. M. Barandiaran (1972, 1997, 2007) eta R. M. Azkue (1989a, 1989b) izan ditugu alor honetan ikerketa eta lan-bilduma sakon zabalak gauzatu dituztenak.

Hezkuntzan dihardugunok badugu zer egiteko, pena bailitzateke orain artean egindako eta bildutako guztia metaketa gisa geratzea, bizitasunik gabe, jorrapen eta zabalkunde gai izan gabe.

### 1.1. Mitologiaren garrantzia eta ekarpena

Gizarte edo komunitate jakin bakoitza elementu kulturalaz osatutako ondare-multzoa pilatzen joan ohi da bere historian zehar. Bonfilek (1999-2000) aditzera ematen duen legez, elementu horietatik batzuk mantendu egiten dira eta beste batzuk berriz, galdu edo desagertu. Izan ere, “esan dezagun, bada, *ondarea* kontzeptua ez dela kontzeptu itxia eta sinplea, baizik eta konplexua eta dinamikoa, denboraren joanaz aldatu egiten dena (...) onartu behar baita talde sozialak ere aldatu egiten direla garai historiko bakoitzaren ezaugarrietara” (Ramirez de Okariz, 2013, 49. or.). Jakina da gainera, gaur egun herri batzuek besteek baino hobeto kontserbatzen dituztela arbasoek utzitako ondare-altxor aberatsak (Satrústegui, 1992).

Elementu-multzo eta altxor horietaz hitz egitean, ondare kulturalaz ari gara, herri batek gizaldietan zehar sortu, transmititu, mantendu eta bereak egin dituen orotariko aspektuez, ez ukigarriak direnak soilik, baita ukiezinak ere. UNESCOK (2003) aski ongi azaltzen du kultura ondarea ez dela monumentu eta objektuen bilduma hutsa, horiez

gain alderdiok ere biltzen dituela nabarmenduz: ahozko tradizio eta adierazpenak<sup>1</sup> - hemen kokatzen dira mitoak -, ikuskizun artistikoak, erabilera sozialak, errituak eta jai-ekitaldiak, izadiarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutza eta praktikak<sup>2</sup> - mitologia hemen kokatu daiteke kosmoikuskeraz bezala - eta tradiziozko teknika artisauak.

Mitoak ahoz aho helaraziz kontserbatu dira eta ondorenez, aho literaturarekin, tradizioarekin eta transmisioarekin zuzeneko zerikusia duten ahozko testutzat jotziz ditzakegu. Aipatutakoa hobeto uler dadin, ikus dezagun *Euskaltzaindiko Literatura Terminoen Hiztegia*-ren sarrera honek hiru elementu hauen gainean dioena:

Aho literaturaren testuinguruan, tradizioa ahoz aho komunikatzen den testu ondarea da. Tradizioa eta transmisioa (igorpena), aurrez aurre jarriarik agertzen dira halako testuinguruetan. Transmisioa, igorpena, halako une batez gertatzen den ahozko testu baten komunikazioa da (...); tradizioa aldiz, transmisio guztien katea. (Euskaltzaindia, d.g.)

Ikuspegi hau eta UNESCOren sailkapena aintzat hartuz, esan dezakegu mitoak ahozko tradizio eta horrenbestez, ondare kultural direla. Hortik dator mitologia eta hari dagozkionak babestu eta eskoletan lantzearen garrantzia, gure transmisio eta herri-jakintzaren ezagutza kateak iraun dezan.

Ez da ahaztu behar bestalde, ondare kulturalak talde-identitatea eta jarraikortasun sentimenduak dakartzala, belaunaldi ezberdinen artean partekatua izanagatik eta orainaren eta iraganaren artean lotura ezartzeagatik (Hernández, 2011). Zentzu horretan, tradizionala eta integratzailea izatetik haraindi, kultura-nortasunerako adierazgarri bihurtzen da inolaz ere. Gure lurraldera hurbilduz, azpimarratzekoa da 1990eko euskal ondare kulturalari buruzko legea, hain zuzen ere, *euskal ondare kulturala* Euskal Herriaren adierazpen nagusia eta herri honen historiarako testiguririk garrantzitsuen delako baitio (García, 1998).

Kontua ez da hemen bukatzen. Mitologiak garrantzia handia badauka kultura ondare den aldetik, interesgarria ere bada egin izan dituen eta egiten jarraitzen duen ekarpenengatik. Antzinatean dakigun bezala, mitoak ezin azalduzko kontu askoren argibide ziren, esaterako, munduaren sorrera, unibertsoa, giza existentzia, bizitza eta heriotza, naturako aldaketak eta abar. Errealitateari zentzua bilatzeko eta gertatzen zena

<sup>1</sup> El ámbito “tradiciones y expresiones orales” abarca una inmensidad de formas habladas como proverbios, adivinanzas, cuentos, canciones infantiles, leyendas, mitos (...). Las tradiciones y expresiones orales sirven para transmitir conocimientos, valores culturales y sociales, y una memoria colectiva. (UNESCO, 2003, 4. or.)

<sup>2</sup> Abarcan una serie de saberes, técnicas, competencias, prácticas y representaciones que las comunidades han creado en su interacción con el medio natural (...). Este ámbito comprende numerosos elementos, por ejemplo, los rituales, las creencias, los ritos de iniciación, las cosmologías (...). (UNESCO, 2003, 12. or.)

ordenan jartzeko tresna ziren. Halaber, Garagalzak (2006-2007) jakitera ematen duenez, babes zeregina ere betetzen zuten desoreka mentala edo beldurra zekarten egoeren aurrean orientazio eredu bezala agertuz.

Atzeragoko garai haietan ez ezik, egun ere aberastasun iturri dira mitoak. Realek (2002) bere aldetik, hiru funtzio nagusi aitortzen dizkie. Batetik, funtzio erregresiboa, oraingo denboretatik atzera egin eta lehenagoko gizakien kontzientzia soziala, bizi kulturala, desioak, emozio primitiboak eta ideiak ezagutzea ahalbidetzen diguna. Bigarrenik, funtzio progresiboa, zeina gure iragana ulertzen lagundu eta etorkizunerako bidea zabaltzen digun, posibilitate eta helmuga berriak iragarritz. Eta azkenik, funtzio didaktikoa, aintzat hartuz mitoei duten balio hezitzailea eta haien baitan gordetzen dituzten irakaspen edo moralejak.

## 1.2. Euskal mitologia

Ortiz-Osés eta Garagalzaren hitzetan (2007) *euskal mitologia* ahozko tradizioari esker kontserbatu diren eta batik bat J. M. Barandiaranek XX. mendearen lehen erdian bildu zituen mito, kontakizun eta elezaharrak dira. Ez dago jakiterik zein den haren sorrera zehatza, baina bi egile hauen ustez badirudi indoeuroparraren eta kristautasunaren aurreko funtsa duela. Jatorriaz edo sustraiez hitz egitean, Satrustegui (1992) ere badu zer esatekorik:

No se ha abordado todavía la cuestión de las raíces de la mitología vasca (...), el pueblo vasco es muy antiguo y se supone, mientras no se demuestre lo contrario, que se había asentado en este territorio antes de la llegada de los pueblos indoeuropeos. Eso sugiere que tendría su propia concepción del mundo y de la vida, que luego fue enriqueciendo con las valiosas aportaciones de otras culturas. (Satrustegi, 1992, 9. or.)

Horrez gain, Duesok (1987) Euskal Herriko tradizio, mito eta sinesmenetan bi aldi daudela nabarmentzen du, paganoa eta kristaua. Argi dagoena zera da, Euskal mitoak aldi bateko zein besteko elementuekin daudela osatuak, eta neurri batean izaera aurre-indoeuroparra badaukate ere, gerora, aldaketak jasan dituztela beste kultura batzuen ekarpenengatik eta erlijio kristauaren eraginez.

Gure mitologia bestalde, autoktonoa eta berezia da bere ezaugarriengatik. Hasteko, Euskal Herriko naturari oso lotua dago: bertakoko basoak, harriak, haitzuloak, ura, sua, zuhaitzak eta animaliak (Sarkisian, 1992). Horrez gain, Ugaldek (1998) esan bezala, kontakizun mitiko ugari euskal lurralde osoan daude hedatuak eta beste asko, lurralde honetako eskualde eta bailara jakinetan zehar. Bigarrenik, Ortiz-Osések (1999)

erakusten digun bezala, mitologia honek irudi femeninoa du erdigunean; Mari jainkosa da denaren ardatz, baita Ama Lurraren pertsonifikazio ere. Hemendik abiatuz lurra amagisa ulertzen da eta horrenbestez, euskal mitologiak mundu-ikuskera lurtarra - lurrari lotua - duela esan daiteke.

Pertsonaiei dagokienez aberastasun handia dugu, Mariz gain ezohiko itxura eta aparteko bertuteak dituzten beste hainbeste izaki magiko ere badaudelako: Maju, Mikelats eta Atarrabi, Tartalo, Basajaun, Lamiak, Akerbeltz, Zezengorri, Jentilak eta abar. Hauek zeruan beharrean lurrean bizi dira, guregandik gertu, hala, mitologia hurbil batekin egiten dugu topo.

Ezin genezake ahaztu euskal mitologia ahozko mitologia dela, kultura-jakintza honek belaunaldiz belaunaldi iraun duelako, ahoz aho, euskarak egin duen bezalaxe (Vigor, 2011). Hain justu ezaugarri horrexek, ongi kontserbatu eta biziraun izanak, egiten du herri honetako mitologia berezi Martínezek (2000) argi adierazten duen moduan. Azkenez, aipatzekoa da, gure mitoek balio handiko irakaspenak (izadiari buruzko jakintza, lehenagoko gizakien beldur eta arazoak...) luzatzen dizkigutela eta balore askoren erakusle ere badirela: natura zaintzearen garrantzia, errespetua, adiskidetasuna, lankidetzeta eta elkarlana, enpatia, arbasoen lekuan jartzeko aukera eta abar.

### **1.3. Euskal mitologiaren gaia Haur Hezkuntzako 2. zikloan**

Euskal mitologiak badauka bere lekua Haur Hezkuntzako 2. zikloan. Etapa honi dagokion curriculum berrituan (Eusko Jaurlaritzak, 237/2015 dekretua) mitologiaren gaiari lotuta dauden hainbat helburu eta eduki agertzen baitira.

Aipatzekoa da, curriculum honek errealitatea ulertzeko eta ikasteko bi eremu zehazten dituela: “Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua” eta “Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua”. Lehendabiziko eremuaren barruan, honela dioen helburu honekin egiten dugu topo: “Haurraren bizi-ingurunean egiten diren bertako eta kanpoko festak, tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko” (Eusko Jaurlaritzak, 237/2015 dekretua, 31. or.). Esandakoak erakusten du haurrek tradizio eta ohitura ezberdinak ezagutu behar dituztela, hala bada, eta mitoak ahozko tradizio diren heinean, hementxe koka genezake mitoen ikaskuntza. Ildo beretik, eremu honetan eduki zehatz hau irakur daiteke: “Norberak egiten dituen eta ingurunean egiten diren jarduera soziokulturalak balioestea eta horietan parte hartzea;



norberaren nortasun-zeinuetako batzuk ezagutzea.” (Eusko Jaurlaritzak, 237/2015 dekretua, 34. or.). Adierazpen honek jardura kultural ezberdinetan murgiltzeko eta norbere nortasun-zeinuak ezagutzeko abagunea eskaintzen du; beste behin, euskal mitologia eta hari dagozkionak hemen leudeke, gure kultura identitatearen eta kultura jaialdien parte diren neurrian.

Bigarren eremura joz, euskal kondaira eta elezahar ezberdinen lanketari, kontaktari eta ezagupenari zuzenean loturiko helburu jakin hau aurki dezakegu: “Hainbat kultura-tradiziotako testu batzuk ulertzea, azaltzea eta moldatzea, haiekiko interesa izateko, haiek balioesteko eta haiekin gozatzeko.” (Eusko Jaurlaritzak, 237/2015 dekretua, 38. or.). Bide beretik, aintzat hartuz kontakizun mitologikoak ahozko testu direla eta ahozko literaturarekin zerikusia dutela, hauen jorrapenari leku emango lieketen hiru eduki konkretu dakusagu: “Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak, errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.”, “Literatura-testu errazak, tradizionalak eta garaikoak, entzutea, ulertzea eta errezitatzea, plazera sentitzeko eta ikasteko.” eta “Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea.” (Eusko Jaurlaritzak, 237/2015 dekretua, 40. or.).

Ikusitakoak ikusirik, ez dago zalantzarik Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologiak bere tokia duela. Bestalde, ez dugu ahaztu behar gai honen bitartez Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletan aspektu anitz landu daitezkeela, batik bat norbere kultura eta nortasun identitatearekin lotutako alderdiak, balore ezberdinak eta euskarazko komunikazio gaitasuna (ahozkotasuna, ulermena, entzumena...). Baina ez hori bakarrik, kontuan izanik mitologiak zentzu sinbolikoa duela eta arrazoiaren eremuko baina senaren eta interpretazioaren esparruko delako, sormena eta irudimena landu daitezke haren bidez. Baita pentsamendu magikoa ere, azken batez, mito-gaiak mundu magikoarekin eta nolabaiteko subjektibotasunarekin ere badaudelako lotuta.

Ikertu beharrekoa da ordea, ea curriculum ofizialak ahalbidetzen duen aukera hau, euskal mitologia Haur Hezkuntzan lantzeko, errealitatean gauzatzen ote den.

Azken urteotan gai honek eskoletan izan behar duen tokiaren eta garrantziaren inguruan hainbat egile mintzatu dira, besteak beste, Millet (2014), Arana (2015) eta Hartsuaga (2016). Baina gure herrialdeko ikastetxeetan gaiari lotutako ikerketarik egin ote den aztertzen aritu ostean, ikusi da orain arte ez dela gauzatu gaiak Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geletan zer-nolako lekua duen jakiteko ikerlanik. Horixe da beraz lan honek dakarren berritasuna, etapa horretako errealitatea nolakoa den aztertzei aukera.

## 2. Metodologia eta lanaren garapena

Ondorengo lerroetan aurrera eramandako metodologiaren berri emango da. Lehenbizi, diseinu metodologikoaz eta aplikazio prozeduraz hitz egingo da. Ondoren, ikerketaren helburu eta hipotesien zehaztapena gauzatu, eta azkenik, parte-hartzaileak eta datuak biltzeko tresna aurkeztuko dira.

### 2.1. Diseinu metodologikoa eta aplikazio prozedura

Ikerketa-lan honetan euskal mitologiaren gaia denez ikerketa objektua, Lea-Artibaiko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako irakasleek haren inguruan adierazitako datuak bildu eta deskribatuko dira.

Diseinu metodologikoari dagokionez, diseinu ez esperimentalak erabiliko da, diseinu deskriptiboa hain zuzen ere. Alvak (2010, 3.or.) honakoa dio mota honetako diseinuetan egin behar denaren inguruan: “Describir características de un conjunto de unidades de estudio. En este diseño el investigador busca y recoge información contemporánea con respecto a una situación previamente determinada (objeto de estudio)”. Beraz, batetik, parte-hartzaileen adierazpenak jaso ahal izateko galdetegiak erabiliko dira tresnatzat, eta bestetik, deskribapen hori egin ahal izateko, emaitza kuantitatiboak aterako dira Microsoft Excel 2007 programaren bidez. Emaitzon kudeaketarako, metodologia kuantitatiboa erabiliko da:

La metodología cuantitativa concibe el objeto de estudio como externo en un intento de lograr la máxima objetividad. Su concepción de la realidad coincide con la perspectiva positivista. Es una investigación normativa, cuyo objetivo está en conseguir leyes generales relativas al grupo. Es una investigación nomotética. (Abalde eta Muñoz, 1992, 94. or.)

Aplikazio eta prozedurari begira, galdetegi hauek 2015-2016 ikasturteko martxoan erantzun dira. “A ikastetxean” eta “B ikastetxean”, martxoaren lehengo astean eta “D ikastetxean” berriz, martxoaren bigarren astean. Hiru kasuetan, galdetegiak egin aurretik ikerketa-lanaren nondik norakoak azaldu zitzaizkien parte-hartzaileei eta haien erosotasuna bilatzeko, galdetegi erabat anonimoa eta isilpekoa zela esan (ikus 1. eranskina). Zeregina betetzeko behar besteko denbora hartu eta zernahitarako laguntza izan zuten: zalantzak, itemen edo galderen gaineko argibideak eta beste.

## 2.2. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

Esan bezala, ikerketaren mamia Lea-Artibaiko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologiaren gaiak zer-nolako lekua duen ikustea da. Zehaztasunez esateko, hezkuntza etapa honetako 2. zikloan lanean ari diren edo noizbait aritu izan diren irakasleek euskal mitologiaren gaiaren inguruan duten ezagutza eta interesa aztertzea bilatzen da. Horrez gain, ikusi nahi da ea herri-jakintza hau lantzen ote duten beraien ikasleekin eta horretarako, ezagutzen eta erabiltzen ote duten tresnarik.

Aipatutakoa ondorioztatzeko lau aspektu zehatz hartu dira kontuan: irakasleek alor honen gainean duten formakuntza, gaiari eskaintzen dioten garrantzia, haurrekin gauzatzen duten lanketa eta baliabide eta materialen ezagutza. Hemendik abiatuz, honela laburbildu ditzakegu ikerketaren helburu eta hipotesiak:

Helburuak	
Lea-Artibaiko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako irakasleek...	- euskal mitologiaren gaiaren gaineko ezagutzarik ba ote duten ikustea.
	- euskal mitologiaren gaiari eta lanketari zer-nolako garrantzia ematen dioten aztertzea.
	- beraien ikasleekin euskal mitologia eta hari dagozkionak lantzen ote dituzten jakitea.
	- euskal mitologiaren gaia lantzeko baliabide eta materialik ezagutzen ote duten eta eskura duten aztertzea.

1. taula. Ikerketaren helburuak.

Hipotesiak	
Lea-Artibaiko ikastetxeetako Haur Hezkuntzako irakasleek/irakasleei...	- ziurrenik badaukate euskal mitologiaren gaiaren gaineko jakintza eta ezagutzarik.
	- euskal mitologiaren gaia eta lanketa garrantzitsuak iruditu arren, ez dute haurrekin behar bezala lantzen gaiari dagokion esangura, denbora eta espazioa eskainiz.
	- ziur aski ezagutu bai, baina ez dute erabiltzen edo ez dute eskura euskal mitologiaren gaia lantzeko baliabide eta material aproposik.

2. taula. Ikerketaren hipotesiak.

## 2.3. Parte-hartzaileak

Ikerketan Bizkaian dagoen Lea-Artibai eskualdeko hiru ikastetxetako 30 irakaslek hartu dute parte. Ikastetxe bakoitzeko irakasle kopurua antzerakoa izan da: 12 “A ikastetxetik”, 9 “B ikastetxetik” eta beste 9 “D ikastetxetik”. Lagin hau kopuruz aski adierazgarria iruditzen zaigu. Hautatutako ikastetxeak izaera publikodunak eta D hezkuntza ereduak dira. Aipatzekoa da bata bestearengandik 15-20 bat km-tara

dauden herri ezberdinetan daudela kokaturik. Hiru herri hauek euskaldunak dira, euskaraz bizi diren 5.000-9.000 biztanle inguruko herriak.

Parte-hartzaileak 30-57 urte arteko Haur Hezkuntzako irakasleak dira. Hauetako batzuk gaur egun Haur Hezkuntzako 2. zikloan ari dira lanean eta gainontzekoak ere aritu izan dira noizbait etapa honetan. Generoa aintzat hartuz, guztiak dira emakumezkoak. Lan-espereziari dagokionean berriz, ondorengoak dira datuak:

Lan-espereziaria hezkuntzan	Ehunekoak
0-10 urte bitartean	%23,3
10-20 urte bitartean	%23,3
20-30 urte bitartean	%40,0
30 urtetik gora	%13,3

3. taula. Lan-espereziari dagozkion ehunekoak.

## 2.4. Datuak biltzeko tresna

Informazioa biltzeko aurrez diseinatutako galdetegi jakin bat erabili da (ikus 1. eranskina). Galdetegia datuak jasotzeko dauden estrategien artean ezagunenetakoa eta erabilienetakoa da. García eta Quintanalek (2010, 1. or.) gisa honetan definitzen dute: “Se trata de una técnica de investigación basada en las declaraciones emitidas por una muestra representativa de una población concreta y que nos permite conocer sus opiniones, actitudes, creencias...” eta bere baliagarritasunaz era honetan mintzo dira: “Dada su enorme potencial como fuente de información, es utilizada por un amplio espectro de investigadores, siendo el instrumento de sondeo más valioso en instituciones como el Instituto Nacional de Estadística (INE), el Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS), ...” (García eta Quintanal, 2010, 1. or.).

Ikerketa honetan erabilitako galdetegia itxia da, datu kuantitatiboak eskuratzeko prestatua, baina badu parte ireki bat ere, zenbait itemetan eta amaieran idazteko tarte zabaltzen duelako ikerketarako informazio osagarria eskuratzeko asmotan. Likerten eskalari<sup>3</sup> dagozkion 28 galderaz dago osatua, itaun horietako bakoitzean erantzun hauetako bat eman behar delarik: *erabat ados* (5), *ados* (4), *ez ados ezta desados* (3), *desados* (2) edo *erabat desados* (1).

<sup>3</sup> Likert eskala: “Se emplea cuando se desea preguntar varias cuestiones que compartan las mismas opciones de respuesta (para lo cual se confecciona una matriz de intensidad). El sujeto debe escoger la categoría de respuesta que represente su opinión.” (García eta Quintanal, 2010, 7. or.).

Galdetegia bestalde, lau atal ezberdinetan banatzen da eta atal horietako bakoitza gaiaren inguruko aspektu jakin batera dago bideratua. Lehengo atalari, “Formakuntza” deitu zaio eta bertako itemek parte-hartzaileek euskal mitologiaren gaiaren gainean duten ezagutza eta prestakuntza aztertzeko balio dute. Ikus dezagun zeintzuk diren lehenengo atal honetako galderak:

1. Atala: FORMAKUNTZA
-----------------------

1. Euskal mitologiaren inguruan badaukat jakintza nahikoa.
2. Ezagutzen ditut euskal lurraldeko elezahar eta kontakizun mitologiko ezberdinak.  
Hala bada, zeintzuk? \_\_\_\_\_
3. Bizi naizen eskualdeko edo ingurune hurbileko herrietako mitoen jakitun naiz.
4. Euskal mitologiako pertsonaien izenak eta haien ezaugarri zein bitxikeriak ezagutzen ditut.  
Hala bada, zein pertsonaia ezagutzen ditut? \_\_\_\_\_
5. Unibertsitateko Haur Hezkuntzako titulazioan zehar, hurrekin gure kulturari eta folkloeari dagozkion arlo ezberdinak (mitologia bera barne) nola landu edo jorratu ikasi nuen.
6. Nire kabuz dokumentatu izan naiz edo dokumentatzen naiz (liburuak, aldizkariak, web orrialdeak...) euskal mitologiari dagozkion kontuen inguruan.
7. Noizbait parte hartu izan dut euskal mitologiaren gaineko konferentzia, tailer edo ikastaroren batean.

*4. taula. Lehengo ataleko galderak.*

Bigarren atalak “Garrantzia” du izena. Hemengo itemak irakasleek gaiari eskaintzen dioten garrantzia eta harekiko duten interesa nolakoa den ikusteko daude pentsatuak.

2. Atala: GARRANTZIA
----------------------

8. Euskal mito eta kondairak arbasoek utzitako tradizio kultural baliotsuak dira.
9. Herri-jakitza eta kultura ondare diren aldetik, euskal mitoak eta gainerakoak babestu, zabaldu eta ikertu beharreko gai izan beharko lirakeke.
10. Kulturari eta folkloeari dagozkien aspektuak lantzeak (mitologia) txikitatik norberaren nortasuna eta kultura identitatea eraikitzen laguntzen du.
11. Euskal mitologiak bere lekua izan beharko luke Haur Hezkuntzako irakaspen gaien artean.
12. Garrantzitsua da Haur Hezkuntzan euskal mitologia lantzea.
13. Gure mitoen lanketa aberasgarria izan daiteke hurrei balore eta ezagutza ezberdinak helarazteko: lehenagoko euskaldunen pentsamendua, mundu-ikuskera, naturako fenomenoak zer-nola ulertzen zituzten...
14. Mitoen lanketa bidez hurrek aspektu asko garatu ditzakete: sormena, irudimena, pentsamendu magikoa, euskarazko komunikazio gaitasuna...

*5. taula. Bigarren ataleko galderak.*

Hirugarren atala “Lanketa” izenekoa dugu eta bertan agertzen diren zazpi puntuek parte-hartzaileek euskal mitologiari lotuta hurrekin gauzatzen duten lanketa zer-nolakoa den jakitea bilatzen dute. Hona hemen atal honi dagozkion galderak:

## 3. Atala: LANKETA

15. Ikasgelan euskal mitologia lantzen dut hurrekin.
16. Badakit nola landu hurrekin euskal mitologia eta hari dagozkionak.
17. Behar besteko denbora eta espazioa eskaintzen diot euskal mitologiaren lanketari.
18. Ipuinaren momentuan, euskal kondaira ezberdinak irakurri eta narratzen dizkiet hurrei.
19. Euskal mitologiaren gaineko jarduera ezberdinak egiten ditugu ikasgelan.  
Hala izatekotan, zeintzuk? \_\_\_\_\_
20. Ikasgelatik at euskal mitologiari lotutako ekintza bereziak egiten ditugu.  
Hala izatekotan, zeintzuk? \_\_\_\_\_
21. Ikastetxean euskal kulturari lotutako proiekturen bat edo jaialdiren bat dago, non bertan euskal mitologiaren gaiak leku duen.

*6. taula. Hirugarren ataleko galderak.*

Azkenik, laugarren atalari “Baliabide eta materialak” izena jarri zaio. Honetan, irakasleek euskal mitologia lantzeko baliabide eta materialik ezagutzen/erabiltzen ote duten eta eskura ba ote duten ondorioztatzeko galderak aurki daitezke. Honakoak galdetzen zaizkie zehazki:

## 4. Atala: BALIABIDE ETA MATERIALAK

22. Hurrekin euskal mitologia lantzeko ezagutzen ditut baliabide eta material aproposak.  
Ezagutzekotan, aipatu zeintzuk: \_\_\_\_\_
23. Euskal mitologiaren lanketarako baliabide eta material egokiak ezagutzen ditudan arren, ez ditut eskura.
24. Gai honen inguruan baliabide urritasuna dago lanean ari naizen ikastetxean (liburuak, ipuinak, irudiak, panpinak...)
25. Nik neuk sortzen ditut euskal mitologia lantzeko material eta tresnak.
26. Gaur egun euskal argitaletxeek material aproposa eta erakargarria eskaintzen dute euskal mitologia eta hari dagozkionak lantzeko.
27. Ezagutzen dut elkarte edo egileren bat hezitzaileentzako euskal mitologiaren gaineko formakuntza eskaintzen duena. Ezagutzekotan, aipatu zeintzuk: \_\_\_\_\_
28. Gaiaren inguruan norbere burua formatzea eta norbere errekurtsioak prestatzea da hurrei euskal mitologia irakasteko baliabide edo tresnarik onena.

*7. taula. Laugarren ataleko galderak.*

## 2.5. Datuen tratamendua

Emaitzak adierazteko, galdetegiko 28 itemetan parte-hartzaileek 1etik 5erako eskalan hautatutako aukera guztien ehunekoak aterako dira (ikus 2. eranskina). Ondoren, beste ikerketa batzuetan egiten den bezala (Estepa, 2013), balore maximoak, hau da *ados* eta *erabat ados* (4 eta 5 aukerak) hartuko dira kontuan, eta bateratu egingo dira itaun bakoitzaren zenbatekoa eskuratzeko eta ikertutako atal ezberdin bakoitzaren batez bestekoa erdiesteko (ikus 3. eranskina).

### 3. Emaitzak

Emaitzak lau ataletan sailkatuta aurkeztuko dira. Atal horietako bakoitza ikergaiaren inguruko eremu konkretu bati dagokio.

#### 1. Atala: Formakuntza

Formakuntzari dagozkion itemak erreparatuz, bi azpi-atal nabarmendu daitezke: jakintza eta prestakuntza. Orokorrean, lehendabiziko azpi-atalean, emaitza positiboak eskuratu dituzte parte-hartzaileek. Horren lekuko, “(1)<sup>4</sup> euskal mitologiaren inguruko jakintza”, “(2) euskal lurraldeko elezahar eta kontakizunen ezagutza” eta “(4) euskal mitologiako pertsonaien eta haien ezaugarrien jakituria” bezalako kontuei erreferentzia egiten dieten itemetako *ados* eta *erabat ados* aukeretan - biak batera harturik - agertutako ehunekoak dira (ikus, beheko 8. taula eta zehaztasun gehiagorako 3. eranskina). Horrez gain, itaun hauetako biren harira (2 eta 4) galdetegian erantzun irekiak emateko zabaltzen zen tartea<sup>5</sup> partaide guztien %76,67ak bete du, haietako askok informazio egokiz eta aberatsez. Esan beharra dago jakintzaren eremu honetan, ehunekorik baxuena “(3) eskualdeko eta inguruko herrietako mitoen jakintza” puntuan ageri dela (%26,66).

Prestakuntzaren azpi-atalean berriz, ezin esan emaitza orokorra horren positiboa denik. Nahiz eta “(6) norbere kabuz dokumentatzea” itemean ehuneko altua lortu (%59,99), gaiaren inguruan irakasleek unibertsitatean jasotako prestakuntza (5) eta gaiari lotutako konferentzia, tailer eta ikastaroetan parte-hartzea (7) oso urriak direla ikus baitaitezke. Azkenik esatekoa da atal honetan, bere osotasunean harturik, partaideek %38,08ko ehunekoa eskuratu dutela.

Itemak labur idatzita	Aukerak: <i>Ados</i> eta <i>erabat ados</i> (4 eta 5)
(1) Euskal mitologiaren inguruko jakintza	%49,99
(2) Euskal lurraldeko elezahar eta kontakizunak	%49,99
(3) Eskualdeko eta inguruko herrietako mitoak	%26,66
(4) Euskal mitologiako pertsonaiak eta haien ezaugarriak	%63,32
(5) Unibertsitatean jasotako prestakuntza	%10,00
(6) Norbere kabuz dokumentatzea	%59,99
(7) Konferentzia, tailer eta ikastaroak	%06,66
<b>FORMAKUNTZA ATALAREN BATEZ BESTEKOA</b>	<b>%38,08</b>

8. taula. Formakuntza atalaren batez bestekoa 4 eta 5 aukerak bateraturik.

<sup>4</sup> Parentesi artean “(…)” adierazten diren zenbakiak itemei dagozkien zenbakiak dira.

<sup>5</sup> Ikus 1. eranskina: Irakasleei banatutako galdetegian 2 eta 4 galderetan zabaltzen den tartea.

## 2. Atala: Garrantzia

Euskal mitologiaren gaiari eskainitako garrantziaren atalean, emaitza oso onak lortu dituzte parte-hartzaileek. Hori, batik bat, “(8) arbasoek utzitako tradizio kultural baliotsua”, “(9) babestu, zabaldu eta ikertu beharreko gaia”, “(14) aspektu andana garatzea” eta “(13) balore eta ezagutza ezberdinak helaraztea” bezalako kontuak aipatzen dituzten itemetako *ados* eta *erabat ados* aukeretan - kasu honetan ere, biak batera hartuz - agertutako portzentaje altuek erakusten dute (ikus, beheago datorren 9. taula eta informazio gehiagorako 3. eranskina).

Geratzen diren gainontzeko hiru itaun hauetan “(10) nortasuna eta identitatea eraikitzen laguntzen du”, “(11) euskal mitologiak Haur Hezkuntzan bere lekua izatea” eta “(12) Haur Hezkuntzan lantzearen garrantzia” agertutako ehunekoak zertxobait baxuagoak izan badira ere, ez dira txikiak.

Eremu honi dagokionean, berau osoki harturik, %88,28ko puntuazioa eskuratu dute hiru ikastetxeetako Haur Hezkuntzako irakasleek.

Itemak labur idatzita	Aukerak: <i>Ados</i> eta <i>erabat ados</i> (4 eta 5)
(8) Arbasoek utzitako tradizio kultural baliotsua	%96,66
(9) Babestu, zabaldu eta ikertu beharreko gaia	%96,66
(10) Nortasuna eta identitatea eraikitzen laguntzen du	%77,99
(11) Euskal mitologiak Haur Hezkuntzan bere lekua izatea	%79,99
(12) Haur Hezkuntzan lantzearen garrantzia	%83,33
(13) Balore eta ezagutza ezberdinak helaraztea	%90,00
(14) Aspektu andana garatzea: sormena, irudimena...	%93,33
<b>GARRANTZIA ATALAREN BATEZ BESTEKOA</b>	<b>%88,28</b>

9. taula. Garrantzia atalaren batez bestekoa 4 eta 5 aukerak bateraturik.

## 3. Atala: Lanketa

Lanketaren atalari erreparatuz, ezin esan daiteke emaitzak onak direnik. Aurrena, ikus daiteke parte-hartzaileen erdiak baino gutxiagok soilik lantzen duela euskal mitologiaren gaia hurrekin (15) eta gainera, erdiak baino gutxiagok bakarrik dakiela nola landu (16). Honez gain, kopuru oso murrizta da (%06,66) gaiaren lanketari behar besteko denbora eta espazioa eskaintzen diona (17). Aipatutakoa modu argiagoan ulertzeko, ikus 10. taulan ageri diren ehunekoak edota xehetasun handiagorako 3. eranskina.

Gaia lantzeko aurrera eramaten diren jarduera eta ekintzen inguruan agertutako balioak ere ez dira altuak. %23,33ak soilik narratzen die beraien ikasleei euskal kondaira



ezberdinak ipuinaren momentuan (18), eta gutxia dira halaber, ikasgela barruan (19) eta batez ere ikasgelatik kanpo (20) gaia jorrazteko jarduerak eta ekintza bereziak gauzatzen dituztenak. Esandakoa baieztatzen dute puntu hauei loturik beheko 10. taula horretan ageri diren balio baxuek.

Bestalde, galdera hauetako biri (19 eta 20) lotuta galdetegian erantzun askeak emateko irekitzen zen tartea<sup>6</sup> partaide guztien %50,00ak bete du. Hala ere, gehienek ez dute inongo erantzun esanguratsurik eman. Ikasgela barruan edo ikasgelatik at euskal mitologia lantzeko ekintza berezien artean ohikoak aipatzen dituzte: Inauteri eguna, Olentzero eguna... Badira baina 6 lagun benetan ekintza bereziak edo erakargarriak aipatzen dituztenak: antzerkia egitea, ipuin ezberdinak antzeztea, pertsonaiak ezagutzeko eskulanak egitea, mozorroak eta maskarak, horma-irudiak, abestiak, pertsonaiak margotzea, bideoak ikustea, bildumak egitea eta ipuin kontalaria ekartzea.

Amaitzeko, esatekoa da partaideen ehuneko txiki batek bakarrik (%23,33) adierazi duela beraien ikastetxean euskal mitologiaren gaiari leku eskaintzen dion proiektu edota jaialdiren bat badagoela martxan (21).

Atal honetan irakasleek orokorrean lortutako puntuazioa edo batez bestekoa %24,28koa baino ez da.

Itemak labur idatzita	Aukerak: Ados eta erabat ados (4 eta 5)
(15) Euskal mitologia landu hurrekin	%36,66
(16) Euskal mitologia nola landu jakin	%39,99
(17) Behar besteko denbora eta espazio eskaini	%06,66
(18) Ipuinaren unean euskal kondaira ezberdinak narratu	%23,33
(19) Jarduera ezberdinak egin ikasgelan	%23,33
(20) Ekintza bereziak egin ikasgelatik at	%16,66
(21) Ikastetxean gaiari lotutako proiektu edo jaialdiak	%23,33
<b>LANKETA ATALAREN BATEZ BESTEKOA</b>	<b>%24,28</b>

10. taula. Lanketa atalaren batez bestekoa 4 eta 5 aukerak bateraturik.

#### 4. Atala: Baliabide eta materialak

Baliabide eta materialen atala dugu azkena. Honakoan ere, emaitzak ez dira izan onak. Partaide oso gutxi (%13,33) ezagutzen ditu hurrekin euskal mitologia lantzeko baliabide eta material aproposak (22). Gutxi izan dira gainera (7 lagun), galdetegian item honetan erantzun irekiak idazteko eskaintzen zen espazioa<sup>7</sup> bete dutenak. Hala ere,

<sup>6</sup> Ikus 1. eranskina: Irakasleei banatutako galdetegian 19 eta 20 galderetan zabaltzen den tartea.

<sup>7</sup> Ikus 1. eranskina: Irakasleei banatutako galdetegian 22. galderan zabaltzen den tartea.

aipatzekoa da hauetako batzuek emandako erantzun askeak interesgarriak izan direla, euskal mitologia jorrazteko zenbait libururen izenak aipatu baitituzte: *Euskal mitologia haurrei kontatua*, *Euskal mitologia. Haurrentzako ipuinak: Euskaldun Ipuin Herrikoien bilduma*, *Jentilen aztarnen atzetik eta Lur eta Amets*, *Euskal Herriaren historia*.

Argi ikus daitekeena zera da, 22. item honi hurrengo bi itemak zeharo kontrajartzen zaizkiola, partaideek adierazten baitute euskal mitologiaren lanketarako badituztela eskura material egokiak (23) eta lanean ari diren ikastetxean ere, badaudela baliabide ezberdinak, hala nola, liburuak, ipuinak, irudiak edota panpinak (24). Hobeto ulertzeko ikusi puntu hauei lotuta 11. taulan ageri diren ehunekoak (zehaztasun gehiagorako jo 3. eranskinera).

Bestalde, irakasleen %20,00ak baino ez ditu sortzen bere kabuz gaiaren inguruko material eta tresnak (25). Honez gain, partaide guztien %30,00ak bakarrik uste du gaur egun euskal argitaletxeek gaia jorrazteko sortzen dituzten materialak aproposak eta erakargarriak direla (26). Deigarriena irakasleek euskal mitologiaren gaineko formakuntza eskaintzen duten elkarte eta egileen gainean (27) adierazitako ehuneko baxua (%03,33) edo ezjakintasuna izan da. Itau honetan zabaltzen zen tarte irekia<sup>8</sup>, ez du inork bete.

Azkenez, azpimarratzekoa da oso positiboki baloratu dutela haurrei euskal mitologia irakasteko tresnarik onena gaiaren inguruan norbere burua formatzea eta norbere errekurtsioak prestatzea dela (28). Eremu honetan, parte-hartzaileek orokorrean lortutako puntuaketa edo batez bestekoa nahiko baxua da, %29,04koa.

Itemak labur idatzita	Aukerak: Ados eta erabat ados (4 eta 5)
(22) Baliabide eta material aproposak ezagutu	%13,33
(23) Baliabide eta material egokiak ezagutu, baina ez eskura	%26,66 (1 eta 2) <sup>9</sup>
(24) Gaiaren inguruan baliabide urritasuna ikastetxean	%33,32 (1 eta 2)
(25) Norbere kabuz sortu material eta tresnak	%20,00
(26) Euskal argitaletxeek material aproposa eta erakargarria sortu	%30,00
(27) Hezitzaileentzako formakuntza eskaintzen duten egile/elkarateak ezagutu	%03,33
(28) Norbere burua formatzea haurrei gaia irakasteko tresnarik onena	%76,66
<b>BALIABIDE ETA MATERIALAK ATALAREN BATEZ BESTEKOA</b>	<b>%29,04</b>

11. taula. Baliabide eta materialak atalaren batez bestekoa 4 eta 5 aukerak bateraturik.

<sup>8</sup> Ikus 1. eranskina: Irakasleei banatutako galdetegian 27. galderan zabaltzen den tarte.

<sup>9</sup> Atal honetako bi item zehaztetan (23. itema eta 24. itema) 4 eta 5 aukerak kontuan hartu eta horiek bateratu beharrean, 1 eta 2 aukerak hartu dira aintzat, aipatutako item horiek *ezezko eran* edo *alderantzizko eran* daudelako formulatuak.

#### 4. Ondorioak eta proposamenak

Azken atal honetan, lehenik ikerketako ondorioen berri emango da. Honen ostean, emaitzetan agertutako gabeziei loturik proposamen sorta bat aurkeztuko da eta amaitzeko, azken gogoeta edo hitz batzuek izango dute tarte.

##### 4.1. Ikerketaren ondorioak

Emaitzek erakutsi digutena aintzat hartuz, ondoriozta genezake Lea-Artibaiko hiru ikastetxe hauetako Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologiaren gaiak duen lekua ez dela oso handia.

Planteatzen ziren helburuei begira, lortu da ikustea irakasleek gaiaren inguruan zer ezagutza duten, gaiari zer-nolako garrantzia eskaintzen dioten, beraien ikasleekin gauzatzen duten lanketa nolakoa den eta baliabide eta materialen inguruan duten ezagutza zein den. Hipotesiei dagokionean, lehengo biak baieztatu dira: alegia, batetik, irakasleek badaukatela gaiaren gaineko jakintza minimo bat, eta bestetik, euskal mitologiaren gaia eta lanketa garrantzitsuak iruditu arren, ez dutela hurrekin behar bezala lantzen gaiari dagokion esangura, denbora eta espazioa eskainiz. Hirugarren hipotesia berriz zintzilik geratu da, uste zenaren alderantzizkoa gertatu baita. Hau da, badirudi irakasleek eskura dituztela gaia lantzeko zenbait baliabide eta material, baina haiek diotenez ez dute ezagutzen halako aproposik.

Azter dezagun helburu eta hipotesi hauei loturik eremu edo atal bakoitzean jasotakoa. Formakuntzaren atalarekin hasiz, ezagutzaren azpi-atal horretan ikusi da partaideek badaukatela gaiarekiko jakintza nahikoa, euskal lurraldeko elezahar eta mitoak ezagutzeaz gain euskal mitologiako pertsonaiak eta beraien ezaugarriak ere ezagutzen baitituzte. Hala ere, kili-kolo geratu dena bizi diren eskualdeko eta ingurune hurbileko mitoen gaineko jakintza izan da. Bestetik, prestakuntzaren azpi-atalean (unibertsitatean jasotako formakuntza; ikastaro, tailerretan... parte hartzea) hutsune nabaria dagoela ikusi da, baina positibotzat jo da irakasleak beraien kabuz dokumentatzea gaiaren inguruan.

Garrantziaren eremuari dagokionez, parte-hartzaileek emaitza oso onak erakutsi eta argi geratu da gaiarekiko badutela halako begirune eta interes berezia. Bai gure herri-jakintza eta kultura ondare den aldetik, eta baita Haur Hezkuntzako ikasgeletan izan behar duen lekuagatik eta haren bidez hurrek ikasi eta garatu ditzaketan aspektu eta baloreengatik.

Ezin esan berdina lanketaren atalean agertutakoaz, ikusi baita ikastetxe hauetako irakasle oso gutxi lantzen duela euskal mitologiaren gaia beraien ikasleekin. Hori gutxi balitz, agerian geratu da askok ez dakitela nola jorratu eta gainera, gaiaren lanketari ez diotela behar besteko denborarik eta espaziorik eskaintzen. Hala, ikasgela barruan zein ikasgelatik at gaiaren inguruan burutzen diren jarduera eta ekintzak oso urriak dira.

Azken eremuan ere, baliabide eta materialenean, hainbat gabezia ikusi dira. Antza denez, irakasleek badituzte eskura euskal mitologia eta hari dagozkionak jorratzeko baliabide eta materialak, baina haien ustez ez dira aproposak. Hala ere, horren aurrean, ikusi da gaia lantzeko ez dutela beraien kabuz tresna propiorik sortzen eta beraz arazo edo hutsune hori bere horretan uzten dutela. Bestalde, harritzekoa da gaur egun informazioa eskuratzeko dugun erraztasunarekin parte-hartzaile guztien artetik horren kopuru xumeak soilik ezagutzea gaiaren gainean hezitzaileentzako formakuntza eskaintzen duen elkarte edo egilerik. Bukatzeko, baloratzekoa da irakasleek haurrei euskal mitologia irakasteko tresnarik onena, norbere burua formatzea eta norbere errekurtsioak prestatzea dela uste izatea. Honakoak irakasleen aldetiko jarrera positiboa dela erakusten baitu.

#### **4.2. Proposamen sorta**

Jarraian, emaitzetan agertutako gabeziak kontuan izanik, Haur Hezkuntzako 2. zikloan euskal mitologiaren gaia lantzeko eta indartzeko proposamen ildo sorta<sup>10</sup> bat aurkezten da. Ikusi da parte-hartzaileek gaiaren gaineko formazio ikastaroen beharra dutela, ikasgela barruan zein ikasgelatik kanpo oso jarduera gutxi burutzen dituztela mitologia lantzeko eta gainera, ez dutela baliabide eta material aproposik ezagutzen.

Hala bada, hutsune zehatz hauei aurre egiteko, bilaketa jakin bat gauzatu da. Iturri ezberdinak (Internetako orrialdeak, liburuak, euskal argitaletxeen materiala, irakasleentzako formakuntza eskaintzen duten egile eta elkarteak...) arakatu ostean, aztertutako testuinguruari eta agertutako beharrezanez egokien datozkienak hautatu dira.

Beharagoko tauletan ikus daiteke proposamen bakoitza zehaztasunez. Lehenengoan, Ixabel Millet formatzaile eta ipuin kontalariaren berri ematen da. Bigarrenean euskal mitologia jorratzeko material aproposa (hiru liburu eta gida interaktiboa) aurkezten da, eta hirugarrenean, ikasgelatik kanpo gaia modu erakargarri batean lantzeko ekintza berezi bat proposatzen da: “Izenaduba Basoa” deituriko parke mitologikora irteera.

<sup>10</sup> Proposamenen inguruko informazio gehigarria ikusteko jo 4. eranskinera.

1. PROPOSAMENA	
Ixabel Millet kontalaria, idazlea eta formatzailea.	
Proposamen honek zein gabezia zehatzi erantzuten dio? (itemekin lotura)	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- (5) Unibertsitateko titulazioan zehar partaide gutxi ikasi zuen nola landu hurrekin gure kulturari eta folkloeari (mitologia bera barne) dagozkion arlo ezberdinak.</li> <li>- (7) Kopuru oso txikiak hartu du parte noizbait euskal mitologiaren gaineko konferentzia, tailer edo ikastaroren batean.</li> <li>- (27) Oso gutxi ezagutzen du elkarte edo egileren bat hezitzaileentzako euskal mitologiaren gaineko formakuntza eskaintzen duena.</li> <li>- (19) Irakasle gutxi dira ikasgela barruan euskal mitologiaren gaineko jarduera ezberdinak aurrera eramaten dituenak.</li> </ul>	
Deskribapena:	
<p>Ixabel Millet egileak 15 urte luze daramatza ipuin kontalari gisa. Euskal mitologiari lotuta, adin guztietarako ipuin-saioak eta ikuskizunak eskaintzen ditu Euskal Herriko leku ezberdinetan zehar: ikastetxeetan, liburutegietan, kultur gune eta antzokietan, euskaltegietan... Horrez gain, hezitzaileentzako euskal mitologiaren inguruan mota askotako hitzaldi, ikastaro eta formakuntza tailerrak eskaintzen ditu. Esaterako: euskal mitologiaren antolamendua eta pertsonaiak, euskal ipuin mitologikoak, zer eta nola irakurri ipuinak eta abar.</p> <p>Haur Hezkuntzako irakasleen prestakuntza areagotzeko eta hurrekin euskal mitologia nola landu daitekeen ikusi eta esperimintatzeko, aberasgarria litzateke Ixabelek eskaintzen dituen saio horietan parte-hartzea.</p> <p>Egileak badu web orrialde bat eta bertan, “formakuntza” izeneko atalean, oso ongi zehazten da hitzaldi, tailer eta ikastaroei buruzko informazio guztia: nori zuzenduak dauden, jorratuko diren aspektuak, erabiliko den metodologia, beharrezko baliabideak, iraupena eta beste.</p> <p>Ongi legoke halaber, euskal mitologiaren gainean ikasgela barruan egiten diren jarduerak areagotzeko, Ixabel ikastetxeetara gerturatu eta gure lurraldeko mito, kondaira eta abarrez mintzatuko den ipuin kontalari baten bisita izatea. Web orrialdean bertan, “ikusgarrien” atalean, agertzen dira ipuin-saioen inguruko xehetasunak ere: aukeran dauden gai eta ipuinak, iraupena, kontaketa bakoitza zein adini dagoen zuzendua eta beste.</p>	
	
1. irudia. Ixabel Millet kontalaria.	
Irakasleentzako informazio erabilgarria: Ixabelekin kontaktua	
Web orrialdea: <a href="http://ixabelmillet.com/">http://ixabelmillet.com/</a>	
Helbide elektronikoa: <a href="mailto:ixabelmillet@gmail.com">ixabelmillet@gmail.com</a>	
Telefonoa: (+34) 68 648 87 73	

<b>2. PROPOSAMENA</b>
2.1. Barandiaran eta Azkueren liburu jakinak.
2.2. Aritza Bergarak zuzendutako egitasmoa: gure mitologiaren gida interaktiboa.
<b>Proposamen honek zein gabezia zehatzi erantzuten dio? (itemekin lotura)</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- (18) Ipuinaren momentuan, kopuru txiki batek bakarrik irakurtzen edo narratzen dizkie hurrei euskal kondaira ezberdinak.</li> <li>- (19) Irakasle gutxi dira ikasgela barruan euskal mitologiaren gaineko jarduera ezberdinak aurrera eramaten dituenak.</li> <li>- (22) Haurrekin euskal mitologia lantzeko oso gutxi ezagutzen dute baliabide eta material aproposak.</li> </ul>
<b>Deskribapena:</b>
<p>Proposamen honetan bi atal bereiziko ditugu. Lehenbizikoan, Barandiaran eta Azkueren liburu jakin batzuk aurki ditzakegu: Azkueren “<i>Euskalerrriaren yakintza I. Costumbres y supersticiones (1989)</i>” eta “<i>Euskalerrriaren yakintza II. Cuentos y leyendas (1989)</i>” eta Barandiaranen “<i>Mitos del pueblo vasco (2007)</i>”.</p> <p>Liburuok lehen eskutik jasotako informazioz eta datu errealez osaturik daudelako hautatu dira. Barandiaranek eta Azkuek herritik, herritarrekin eta baserrietako bizilagunekin solas eginez, jaso zituzten gure herri-jakintzari dagozkion hainbat testigantza. Hala, aipatutako liburuetan euskal mito, kondaira eta ipuinen gaineko herri ezagutza biltzen da. Iturri originalekoa, inongo bertsio edota eraldaketa gabea. Azkueren lehen liburuan, 15. atala da interesatzen zaiguna, bertan deskribatu eta kontatzen baitira euskal izaki mitologikoen gaineko ezaugarri eta kontakizun mitikoak. Beste bi liburuak osotasunean dira interesgarriak, orri guztietan zehar mintzatzen baitira mito eta pertsonaien inguruko xehetasunen eta istorioen gainean.</p> <p>Lan hauek aproposak dira ipuinaren momentuan hurrei gure mitologiari dagozkion pasarteak kontatzeko. Irakasleek liburuotan agertzen den idazkera mota haurren adinera egokitu eta euskaraz narratu dezakete, beti ere jatorrizko bertsioa mantenduz.</p> <p>Bigarren atalean, Adarmendi eta Orritz elkarteek bultzatu eta Aritza Bergarak zuzendutako egitasmoa dugu: gure mitologiaren gida interaktiboa, “<i>Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik</i>” (2010). Gida honek, liburu bat eta DVD bat dakartza. Liburuak 34 izaki mitologiko ezagutzeko aukera eskaintzen du ilustrazio ikusgarrien bidez eta Barandiaran eta Azkuek jasotako datuekin idatzitako deskribapenen eta kondairekin. DVD interaktiboak berriz, 26 pertsonaia mitikoren bideoak, audioak, argazkiak, kondairak eta ilustrazioak biltzen ditu. Gida eskuratzeko, badago web orrialde bat eta bertan sakontasunez azaltzen dira liburuaren eta DVD-aren gaineko xehetasun guztiak.</p> <p>Aurkeztutakoarekin Haur Hezkuntzako irakasleek badaukate euskal mitologia lantzeko baliabide aproposen berri. Gakoa, materialei erabilera egokia ematea eta etekina ateratzea da, ikasgela barruan gaiari lotutako jarduerak ugaritzeko asmoz.</p>
<b>Irakasleentzako informazio erabilgarria: Materiala eskuratzeko</b>
<p><b>Liburuak:</b></p> <p>Azkue, R. M. (1989a). <i>Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco. I. Costumbres y supersticiones</i>. Madril: Espasa-Calpe S. A.</p> <p>Azkue, R. M. (1989b). <i>Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco. II. Cuentos y leyendas</i>. Madril: Espasa-Calpe S. A.</p> <p>Barandiaran, J. M. (2007). <i>Mitos del pueblo vasco</i>. Donostia: Herritar Berri S. L.</p> <p><b>Gida (web orrialde honetan eskuragarri):</b> <a href="http://www.euskalherrikomitologia.com/index.html">http://www.euskalherrikomitologia.com/index.html</a></p>

3. PROPOSAMENA	
“Izenaduba Basoa” parke mitologikora irteera.	
Proposamen honek zein gabezia zehatzi erantzuten dio? (itemekin lotura)	
-(20) Partaideen artetik irakasle gutxi dira ikasgelatik at euskal mitologiari lotutako ekintza bereziak gautzen dituztenak.	
Deskribapena	
<p>“Izenaduba Basoa” (Mungia) Euskal Herriko mitologiaren inguruko parkea eta interpretazioa zentroa da. Izenadubako Pedagogia Sailak ikastetxeentzako programa didaktiko bereziak eskaintzen ditu, eta hala, bertan burutzen diren ekintzak eta bisita gidatua hezkuntza maila bakoitzeko eskola curriculumera daude egokituak. Pedagogia Sailaren helburu nagusia, euskal kultura eta tradizioarengako begirunea eta errespetua sustatzea da.</p> <p>Parkean dena da magikoa, pertsonaia mitologikoez josita dago (Mari, Lamiak, Tartalo, Akerbeltz...) eta bakoitzak bere bizilekua edo txokoa dauka bertan. Bisita antzeztua da eta pertsonaiek bizia hartu eta istorioak eta kondairak kontatzen dizkiete ikusleei. Ibilbidean zehar hurrek hainbat ekintza ezberdin gauzatu ditzakete: Sorginen baratzean murgildu, Mariren koban jolastu, Basajaunen baso magikoan eta labirintoan aritu, Tartaloren hoditik jaitsi, Jentilen harri elastikoetan salto egin eta abar.</p> <p>Jolas tematizatuez gain, teknologia berrien bitartez, Olentzeroren baserrian naturari, ohitura zaharrei eta euskal mitologiako kondairei buruzko joko elkarreragileetan aritzeko aukera dago.</p> <p>Simulagailua deituriko gela berezi bat ere badago, zinema antzeko bat. Bertan 3D erako betaurrekoak jantzi eta bisitariak euskal mitologiaren unibertsora eramango dituen esperientzia birtual bat bizi ahal izango dute.</p> <p>Ikus daitekeen bezala, mota honetako bisita batekin hurrek euskal mitologiaren gaira hurbildu daitezke esperimendatzen, ongi pasatzen eta jolasten ari diren bitartean. Kondaira eta elezahar ezberdinak entzun eta pertsonaiak zein haien nolakotasun eta bitxikeriak ezagutu ditzakete modu entretenigarri batean. Ikasgelatik at euskal mitologia lantzeko proposamen berezia eta erakargarria da ezbairik gabe.</p> <p>“Izenaduba Basoak” web orrialde bat dauka. Orri horretan, oso ondo zehazten dira parkearen nondik norakoak: non dagoen kokatua, nola iritsi daitekeen bertara, zein ekintza gauzatu daitezkeen, bisitaren xehetasunak, ordutegiak, erreserbak nola egin eta beste.</p>	
	
2. irudia. “Izenaduba Basoko” Mariren haiztuloa.	
Irakasleentzako informazio erabilgarria: “Izenaduba Basoarekin” kontaktua	
<p>Web orrialdea: <a href="http://www.izenaduba.com/">http://www.izenaduba.com/</a></p> <p>Helbide elektronikoa: <a href="mailto:olentzero@izenaduba.com">olentzero@izenaduba.com</a></p> <p>Telefonoa: (+34) 94 674 00 61</p> <p>Kokapena: Olentzeroren Baserria. Landetxo Goikoa. 48100 Mungia (Bizkaia)</p>	
	

### 4.3. Azken hitzak

Etorkizuneko lanen helburu, gure lurraldeko beste eskualde euskaldun batzuk hartu eta eremu horietako ikastetxeetan gaiak zer-nolako lekua duen aztertzea izan daiteke. Eta ondoren, gabezia edo hutsune jakinak agertuz gero, lan honetan egin den bezala, horiei aurre egiteko lantze eta indartze proposamenak diseinatu. Interesgarria izango litzateke halaber, ikerketa lan berdina eremu erdaldun batean egitea, hartara, testuinguru bateko eta besteko emaitzak erkatzeko aukera egongo litzateke.

Ikerketari dagozkionak alde batera utziz, gai honek gure herriari eta kulturari lotutako alderdien ikaskuntzan duen garrantzia azpimarratu nahi da. Haur Hezkuntzan mitologia bezalako jakintzagaiak lantzeak bide ematen die hurrei atzera begiratu eta gure sustraiez eta jatorriaz gehiago jakiteko. Haurtzarotik gure izaera eta kultura identitatea eraikitzeko aberasgarria ere bada, gertu kokatzen baikaitu gure ahaideek mundua ikusteko zuten ikuskeratik, haien ohitura eta tradizioetatik, sinesmen eta urte askoan gordetako herri-jakintzatik.

Beraz, gure kulturari dagozkion alderdiak (mitologia bera barne) eskoletan irakatsi beharreko gai garrantzitsutzat jotzen baditugu, hezkuntzan dihardugunok badugu zeri heldu. Hurrei alderdi horien balioa eta haiekiko begirunea helarazi behar diegu. Mendeetan zehar, belaunaldiz belaunaldi guganaino iritsi diren kultura ondare baliotsua direla ikusaraziz eta haien bidez gure arbasoen bizitzari buruzko gauza harrigarri asko ikasi daitezkeela ohartaraziz.

Irakasleok dugu giltza hainbeste maite dugun herriaren inguruko jakintza haurren esku jartzeko. Guri dagokigu horrenbestez, euskal mitologia lantzeko bideak bilatu eta ikasgelak baliabide eta material egokiz hornitzea, baita gaiari dagokion esangura eta espazioa eskaintzea.



## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Abalde Paz, E. eta Muñoz Cantero, J. M. (Koord.). (1992). Metodología cuantitativa vs. cualitativa. *Metodología educativa. I. Xornadas de Metodología de Investigación Educativa*, 89-99. Coruña: Universidad da Coruña. 2016-03-01ean hartua, hemendik: <http://ruc.udc.es/bitstream/2183/8536/1/CC-02art7ocr.pdf>
- Alva, A. (2010). *Diseño metodológico*. 2016-03-01ean hartua, hemendik: <http://myslide.es/documents/disenometodologico-5584689ad9e9c.html>
- Arana, A. (2015). *Euskal mitologiak lekua izan beharko luke eskola curriculumean*. 2016-04-15ean hartua, hemendik: <http://www.durangokoazoka.eus/eu/albisteak-zerrenda/488-%E2%80%9Ceuskal-mitologiak-lekua-izan-beharko-luke-eskola-curriculumean%E2%80%9D>
- Azkue, R. M. (1989a). *Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco. I. Costumbres y supersticiones*. Madril: Espasa-Calpe S. A.
- Azkue, R. M. (1989b). *Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco. II. Cuentos y leyendas*. Madril: Espasa-Calpe S. A.
- Barandiaran, J. M. (1972). *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca*. Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca.
- Barandiaran, J. M. (1997). *Mitología del pueblo vasco*. Lasarte-Oria: Etor-Ostoa.
- Barandiaran, J. M. (2007). *Mitos del pueblo vasco*. Donostia: Herritar Berri S. L.
- Bergara, A. (datarik gabe). Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik [bloga]. 2016-03-23an hartua, hemendik: <http://www.euskalherrikomitologia.com/index.html>
- Bergara, A. (2010). *Euskal Herriko Mitologia. Jentilen aztarnen atzetik*. Lemoiz: Adarmendi Euskal Kultur Elkarte.
- Bonfil, G. (1999-2000). Nuestro patrimonio cultural: Un laberinto de significados. *Revista Mexicana de Estudios Antropológicos*, 45-46, 19-38. 2015-12-23an hartua, hemendik: <http://ciudadespatrimonio.mx/descargables/NUESTRO-PATRIMONIO-CULTURAL-UN-LABERINTO-DE-SIGNIFICADOS.pdf>
- Dueso, J. (1987). *Nosotros los vascos: Mitos, leyendas y costumbres II. Vida tradicional*. Bilbo: Lur Argitaletxea S. A.
- Estepa, J. (Ed.). (2013). *La Educación Patrimonial en la Escuela y el Museo: investigación y experiencia*. Huelva: Universidad de Huelva.
- Euskaltzaindia (datarik gabe). *Literatura Terminoen Hiztegia: Tradizio*. 2016-01-08an hartua, hemendik: [http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_xslt&Itemid=374&lang=eu&layout=1th\\_detail&search=tradizio&view=frontpage](http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_xslt&Itemid=374&lang=eu&layout=1th_detail&search=tradizio&view=frontpage)
- Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. (2016). *237/2015 dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. 2016-02-22an hartua, hemendik: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>
- Garagalza, L. (2006-2007). La mitología vasca en la actualidad. *KOBIE (Serie Antropología Cultural) Bilbao. Bizkaiko Foru Aldundia-Diputación Foral de Bizkaia*, (12), 135-148. 2015-11-14an hartua, hemendik: [http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/04/ondarea/Kobie/PDF/5/Kobie\\_12AC\\_LA%20MITOLOG%20C3%8DA%20VASCA%20EN%20LA%20ACTUALIDAD,%20The%20Basque%20My.pdf](http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/04/ondarea/Kobie/PDF/5/Kobie_12AC_LA%20MITOLOG%20C3%8DA%20VASCA%20EN%20LA%20ACTUALIDAD,%20The%20Basque%20My.pdf)

- García, B. eta Quintanal J. (2010). Técnicas de investigación. *MIDE*, 3, 1-23. 2016-03-15ean hartua hemendik: <http://brayeban.aprenderapensar.net/files/2010/10/TECNICAS-DE-INVEST.pdf>
- García, J. L. (1998). De la cultura como patrimonio al patrimonio cultural. *Política y Sociedad*, (27), 9-20. 2016-01-14an hartua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=154505>
- Hartsuaga, J. I. (2016). *Herri nortasuna herriaren baitan transmititzen diren balioek osatzen dute. Egiteko hori mitologiarena zen lehen, eta gaur egun eskolarena da*. 2016-04-15ean hartua, hemendik: <http://www.hikhasi.eus/albistea.php?id=1157>
- Hernández, L. (2011). ¿Qué es el patrimonio cultural inmaterial?. *Boletín del CIDIC*, (4), 3-5. 2016-01-15ean hartua, hemendik: <http://www.cervantes.es/imagenes/File/cidic/Boletin%20completo%204.pdf>
- Izenaduba Basoa (2014). Izenaduba Basoa, Mungia [web orrialdea]. 2016-03-22an hartua, hemendik: <http://www.izenaduba.com/>
- Martínez, L. (2000). Sobre mitología vasca: Comparación y repetición. *Revista de Folklore*, (229), 33-36. 2015-11-18an hartua, hemendik: <http://media.cervantesvirtual.com/jdiaz/rf229.pdf>
- Millet, I. (2014). *Euskal mitologia eskoletan: Herri mailan euskal mitologiari buruzko dibulgazio-lana egitea falta da*. 2016-04-15ean hartua hemendik: <http://www.hikhasi.eus/artikulua/2247>
- Millet, I. (2013). Ixabel Millet [web orrialdea]. 2016-03-23an hartua, hemendik: <http://ixabelmillet.com/>
- Ortiz-Osés A. eta Garagalza, L. (2007). *Euskal mitologia. Izena duen guztia omen da*. Donostia: Nerea Argitaletxea.
- Ortiz-Osés, A. (1999). Mitología vasca. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra, (Dedicado a: IV Congreso de Antropología Aplicada)*, (31), 341-342. 2015-12-04an hartua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=308956>
- Ramirez de Okariz, I. (2013). *Gertuko kultura ondarearen transmisioa eta hezkuntza eragileak Lehen Hezkuntzan (Doktoretza Tesia)*. Mondragon Unibertsitatea, Mondragon.
- Real, C. (2002). El valor didáctico del mito: Posibilidades de análisis. *Fortunatae: Revista canaria de filología, cultura y humanidades clásicas*. (13), 255-268. 2016-01-20an hartua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=831855>
- Sancho el Sabio Fundazioa. (2014). Euskal Memoria Digitala [web orrialdea]. 2016-03-22an hartua, hemendik: <http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/2181>
- Sarkisian, V. (1992). Algunos aspectos mitológicos de la teoría Vasco-Armenia. *Fontes linguae vasconum: Studia et documenta*, (24), 15-44. 2015-11-21ean hartua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/26095.pdf>
- Satrústegui, J. M<sup>a</sup>. (1992). La impronta de la mitología vasca. *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 24(60), 163-172. 2015-11-14an hartua, hemendik: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/144836.pdf>
- Ugalde, A. (1998). *Euskal Herria, herri bat*. Bilbo: Sua Edizioak.
- UNESCO (2003). *Los Ámbitos del Patrimonio Cultural Inmaterial*. 2016-01-04an hartua, hemendik: <http://www.unesco.org/culture/ich/doc/src/01857-ES.pdf>
- Vigor, I. (2011). Vestigios de un mundo mágico y legendario. *Euskal Herria*, (52), 26-46.